

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZANBRANAKO UDALA

2021eko zerga egutegia onestea

Ikusita 2021erako zerga egutegia eta udal honek kudeatzen dituen aldizkako zergak ordaintzeko epea onetsi behar direla, eta kontuan hartuta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoa, honen bidez honakoa ebazten dut:

LEHENENGOA. Onespena ematea zerga egutegiari eta jakinarazpen kolektiboaren eta aldizkakoaren borondatezko ordainketa aldiari. Honela geratuko da:

ZERGA	BORONDATEZKO ALDIA	BETEARAZTE ALDIA
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	2021eko martxoaren 1etik apirilaren 30era, biak barne	2021eko maiatzaren 1etik aurrera
— Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga. (OHZ) — Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zerga.	Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra, biak barne.	2021eko irailaren 1etik aurrera
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	2021eko urriaren 15etik abenduaren 15era arte, biak barne.	2021eko abenduaren 16tik aurrera

BIGARRENA. Zerga erroldak, zeinak ordaindu beharreko kuotak eta horien zerga elementu erabakigarriak jasotzen baitituzte, udal bulegoetan jarriko dira jendaurrean, iragarkia ALHAOn argitaratu ondoren, jendaurreko epean egoki iritzitako alegazioak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA. Dirua sartzeko moduak eta ordainketa egiteko lekuak:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Bankuetan ez helbideratutako ordainketak, ordainketa gutun bidez egingo dute ordainketa hauetan:

- Kutxabanken bulegoetan.
- Rural Kutxaren bulegoetan.
- Internet bidez, web orri honetan: www.euskadi.eus/mipago.

Zambrana, 2020ko abenduaren 16a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI